

Urria-Azaroa  
2015

# ERABILTZAILEAREN GIDA



NAZIOARTEKO  
BIKAINASUN  
CAMPUSA  
CAMPUS DE  
EXCELENCIA  
INTERNACIONAL



**Sexukablog: Informazio eta  
Komunikazio Teknologia (IKT)  
partizipatiboa Araba  
Eskualdea/Osakidetza eta  
UPV/EHUko Irakaskuntza-  
programan**

## KURTSOAREN GAITASUNAK

---

### OROKORRAK:

- ✓ Hobetzea osasun-profesionalen eta erabiltzaileen gaitasunak aktibitate sexualean ohitura osasungarrien sustapenerako.
- ✓ Koordinatzea asistentzia-maila eta maila profesional desberdinak integratuz Ikerkuntzarako Metodologia Aktiboa eta Partizipatiboa.

### ESPEZIFIKOAK:

- ✓ Integratu Informazio eta Komunikazio Teknologia Partizipatiboa (IKTP), Aktibitate Sexualean Ohitura Osasungarrien Sustapenerako (PHSAS) erabiltzaile eta profesionalen informazio-eskaria aztertzea baimentzen duten hezkuntza-baliabide gisa.
- ✓ Eguneratzea eta indartzea PHSASei buruzko ezagutza teorikoa.
- ✓ Ezagutzea azken aurrerapenak Giza Papilomavirusaren Birusaren bahetze, txertaketa eta protokoloetan, beste sexu bidez transmititzen diren gaixotasunetan, kontrazepzioan, sexualitatearen gestioan eta sareko informazioan.

### IRAKASLEAK:

---

Hainbat profesional: ginekologoak, psikologoak, Euskal Herriko Unibertsitateko Irakasleak eta komunitateko informatzaile jakinak. Azken horien artean daude proiektuko talde-dinamiketan, irakaskuntzan eta online irakaskuntzan, ebaluazioan eta difusioan parte hartzen duten Lehen mailako Olarizu Arreta Unitateko sustapen sareko erabiltzaileak (UAP eta gizarte eta osasun-agentek).

### HARTZAILEAK

---

- Unibertsitateko ikasleak
- Gizarte- eta Osasun-profesionalak
- Irakasleria
- Erabiltzaileak

### AKREDITAZIOA:

---

Profesionalentzat, etengabeko prestakuntza.  
Ikasleentzat, aukerazko ECTS kreditu bat.

## PLANGINTZA OROKORRA

- Inskripzioa online egingo da <http://www.reunalia.com/7597612> webgunearen bidez (**Urriaren 5etik 27ra**).
- Online jarduerak hasiko dira 2015eko urriaren 5ean. Gomendatzen da online formazioa osatzea Jardunaldi Presentziala baino lehen.
- 2015eko urriaren **29ean eta 30ean eta 2015eko Azaroaren 4an eta 5ean**, inskribatutakoek egin beharko dute ebaluazio-galdetegia.
- Kurtsoa amaituko da 2015eko Azaroaren 5ean.

### A. JARDUERA PRESENTZIALA:

- ✓ Jarduera Presentzialak egingo dira 2015eko Azaroaren 2 eta 3an. Jarduera horiek birritan egingo dira, goizez edo arratsaldez eta egoitza desberdinetan. Horrela, kurtsoan inskribatuak joan daitezke jardunaldietara egokiagoa duten ordutegian, beti ere kontuan izanik goizez inskribatuak ezingo direla bertaratu arratsaldeko ekitaldietan, eta alderantziz.
- ✓ Programa zientifikoa osatzen duten 5 saioak garatuko dira 9 ordutan.
- ✓ Jardunaldi Presentzialak gazteleraz izango dira, baina parte hartzea, galderak edota iradokizunak baita egin ahal izango dira euskaraz edota ingelesez.
- ✓ Lortuko dute egiaztagiria Espainiatik at bizi diren pertsonen kasuan baldin eta jardunaldiak *streaming* bidez jarraitu eta ebaluazio-irizpideak betetzen badituzte.
- ✓ Informazio gehiago eta triptikoak: **www.sexukablog.com**

#### Jarduera Presentzialen egitaraua:

##### JARDUNALDI PRESENTZIALA GOIZEZ

##### Gorbeia Aretoa. Lakua-Arriaga. Arabako Eskualdea

<b>Azaroaren 2an</b>	
08:00-08:15	Dokumentazioaren banaketa
08:15-11:15	Bizitza sexualaren beste alderdia: Sexu bidez Transmittedutako gaixotasunak (STG) eta bulbobaginitisa.
11:15-12:30	Giza Papilomaren birusa. Bahetzea eta azken aurrerapenak.
<b>Azaroaren 3an</b>	
08:00-09:00	Sexualud. IKTen erronkak. Internetek sexua eguneratzen du.
09:00-10:45	Zu, zure bizitza eta kontrazepzioa.
10:45-12:30	Sexua: gezurrak eta esamesak.

##### JARDUNALDI PRESENTZIALA ARRATSALDEZ

##### Ekitaldi Aretoa. Farmazia Fakultatea, UPV/EHU

<b>Azaroaren 2an</b>	
16:00-16:15	Dokumentazioaren banaketa
16:15-18:15	Bizitza sexualaren beste alderdia: Sexu bidez Transmittedutako gaixotasunak (STG) eta bulbobaginitisa.
18:15-20:30	Giza Papilomaren birusa. Bahetzea eta azken aurrerapenak.
<b>Azaroaren 3an</b>	
16:00-17:00	Sexualud. IKTen erronkak. Internetek sexua eguneratzen du.
17:00-18:45	Zu, zure bizitza eta kontrazepzioa.
18:45-20:30	Sexua: gezurrak eta esamesak.

## B. ONLINE PRESTAKUNTZA

- ✓ Edukien aurkezpena egingo da Moodle plataforma batez bidez UPV/EHUko gela birtual batean. Horrek baimenduko du elkarrekintza maila altuko auto-ikasketa konstruktibista burutzea,
- ✓ Ikasgela birtuala eskuragarri egongo da bi hizkuntzatan: euskara eta gaztelera.
- ✓ Asmoa da erantzutea erabiltzaileen behar edota interesei, ikasketa prozesua pertsona bakoitzaren beharrei egokitzuz. Ikasketarako gaiak independenteki lan daitezke.
- ✓ Informazioa aurkeztuko da zenbait formatutan:
  - Ikaslearen gida.
  - Bideoak
  - Bibliografía
  - Kasuen adibideak
  - Estekak.
  - Gida zientifikoak
  - Jarduera interaktiboak
  - Mugikorrarentzako glosarioa.
  - IKT: [www.sexukablog.es](http://www.sexukablog.es)

## KURTSOAREN IKASKETA-GAIAK, GAITASUNAK ETA ESPERO DIREN IKASKETAREN EMAITZAK

IKASKETA-GAIAK	GAITASUNAK	IKASKETAREN EMAITZAK
1. Sexalud. Internetek sexua eguneratzen du. IKTen erronkak.	Ezagutzen du internetek eskaintzen dituen aukerak ikaslearen formazio jarraituentzat Aktibitate Sexualean Ohitura Osasungarrien Sustapenaren (PHSAS) alorrean.	Erabiltzen ditu Internetek eskaintzen dituen informazio-iturriak eta egokiro bereizten ditu edukien baliozkotasun zientifikoa. IKT.
2. Giza Papilomaren birusa (HPV). Bahetzea eta azken aurrerapenak.	Ulertzen du HPVak duen garrantzia minbizian eta ezagutzen ditu alorreko azken aurrerapenak.	Identifikatzen ditu bahetze-teknikak baldintza kliniko desberdinetan.
3. Bizitza sexualaren beste alderdia: Sexu bidez Transmittitutako Gaixotasunak (STG) eta bulbobaginitisa.	Ezagutzen du STGen garrantzi epidemiologikoa.	Garatzen ditu ezagutza horiek kasu kliniko konkretuen bidez.
4. Zu, zure bizitza eta kontrazepzioa.	Ezagutzen ditu sexu bietan kontrazepzio metodo desberdinak.	Erlazionatzen ditu kontrazepzioa eta erabiltzailearen bizimodua.
5. Sexua: gezurrak eta esamesak.	Demostratzen du ezagutzen eta ulertzen dituela Giza Izate Sexualaren oinarriko kontzeptuak.  Eusten dio erotikaren eta amatoriaren ikuspuntu ez-genitalizatuari.	Desberdintzen ditu Giza Izate Sexualaren oinarriko kontzeptuak.  Identifikatzen ditu Giza Izate Sexualaren kontzeptuekin erlazionatutako terminoak.  Antzematen ditu egoera jakin batean, sexualitatearekiko, erotikarekiko eta amatoriarekiko jarrerak.

*PHSAS: Promoción de Hábitos Saludables en la Actividad Sexual*

## EBALUAZIOAREN IRIZPIDEAK

---

### Gutxieneko irizpideak kurtsoa gainditzeko eta Egiaztagiria lortzeko:

- Lantzea online formazioaren edukien % 100a.
- Proposatzea ikasgela birtualaren bidez kurtsoarekin erlazionatutako iradokizun, proposamen edota hobekuntzarako ekarpen bat.
- Ikasgela birtualaren amaierako ebaluazio proba gainditzea. Probak izango ditu 15 galdera eta gehienez bi aukera emango dira. Gutxienez galderen % 80a asmatu behar da. Galderak datu-banku batetik aterako dira eta izango dute enuntziatu laburra eta hiru erantzun mota posible:
  - ✓ Lau aukera, bakarra zuzena.
  - ✓ Zuzena / Okerra
  - ✓ Esaldia osatu hitz batekin.
- Aurreko irizpideak betetzen dituzten parte-hartzaileek eta jardunaldi prezentzialen % 80an bertaratzen direnak Egiaztagiria jasoko dute.
- Lortuko dute egiaztagiria Espainiatik at bizi diren pertsonen kasuan baldin eta jardunaldiak *streaming* bidez jarraitu eta ebaluazio-irizpideak betetzen badituzte.

### Jardunaldi Prezentzialaren ebaluazioa:

- ✓ Betetzea Jardunaldi Prezentzialeko jakintza-galdetegiak saio bakoitzaren hasieran eta amaieran.
- ✓ Jardunaldi Prezentziala amaitzean, eskatuko zaie bertaratutakoei erantzuteko gogobetetze-inkesta anonimoa.
- ✓ Bertaratzearen kontrola egingo da.

### Kurtsoaren kalitate-kontrola:

AMIA/DAFO matrizea (Ahuleziak, Mehatxuak, Indarrak eta Aukerak). Burutuko dute jardunaldien amaieran parte hartzaileek eta irakasle-taldeak online galdetegiaren bidez.

## SARBIDEA

---

Sar zaitzke kurtSORA Internetera konektatuta dagoen edozein ordenagailutik. Ikasle bakoitzaren estatistikak, eta, emaitzak erregistratuko dira ikasleak erabilitako ordenagailuarekiko independenteki.

Zure sarbidea sare korporatibo batean badago baliteke ezin instalatu izatea software motaren bat aldeztu aurretik sarearen administratzaileari jakinarazi gabe. Horrela balitz, kontaktatu zure Erabiltzailearen Laguntza-Zentroarekin edo mota horretako zerbitzua ematen duen informatikako pertsonalarekin.

## MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK

---

### Erabili dezaket edozein nabigatzaile kurtsoa egiteko?

Ikasketarako moodle plataformak (<https://egelapi.ehu.eus>) prestatuta dago ondo funtzionatzeko ohiko nabigatzaileekin (Mozilla Firefox, Google Chrome, Internet Explorer, eta abar).

### Behar dut beste programarik kurtsoa egiteko?

Kurtsoko zenbait eduki PDF edo Flash formatuetan daude. Horiek ikusteko erabil daitezke dohainik [Adobe Acrobat Reader](#) eta [Adobe Flash Player](#) aplikazioak.

### Ez dute funtzionatzen nire “erabiltzaile-izenak” eta “pasa-hitzak”. Zer egin dezaket?

Ezin baduzu sartu ikasgela birtualera probatu honako aukerak:

- Ziurtatu erabilitako klabeak ondo tekleatu izana eta bat datozela emandakoekin.
- Arazoak ez bada konpontzen kontaktatu lehen aukera gisa posta elektronikoz ([sexukablog@osakidetza.eus](mailto:sexukablog@osakidetza.eus)), edo azken aukera gisa telefonoz (687179874).

## ERANSKINAK

### 1. ERANZKINA

#### Online plataformara sarrera eta erabilera

- Kurtsoan <http://www.reunalia.com/7597612> estekaren bidez inskribatu ondoren (urriaren 1etik 27ra), erabiltzaileari posta elektronikoz bidaliko zaizkio UPV/EHUko moodle plataforman dagoen kurtsoa sartzeko klabeak. Aukeratutako hizkuntzaren arabera, hauetariko dagokion estekaren bidez sartu beharko da kurtsoa:

Kurtsoa euskaraz: <https://egelapi.ehu.eus/course/view.php?id=211>

Kurtsoa gazteleraz: <https://egelapi.ehu.eus/course/view.php?id=174>

- Pantailak aurkeztuko duen formularioan bete beharko dira “erabiltzaile-izena” eta “pasahitza” klabeak.

**Izena emandako erabiltzaileak**

Sartu hemen zure erabiltzaile-izen eta pasahitzarekin  
(Cookie-ak gaituta izan behar dituzu zure nabigatzailean) ?

Erabiltzaile-izena

Pasahitza

Gogoratu erabiltzaile-izena

Ez zara oraindik sartu.

- Kurtsoaren barnean gaudenean, ikusi ahal izango dugu kurtsoaren goiko aldea erreserbatuta dagoela zenbait gauza orokorrentzako (estekak, kurtsoaren foro orokorra, ohar eta berriak, eta abar). Beherago aurkituko dira kurtsoaren mamia diren 5 gai/atalak.






 [Novedades](#)

[Osagune Sexukablog Taldearen Bloga](#)

---

**1. GAIA. SEXALUD. INTERNETEK SEXUA EGUNERATZEN DU. IKTen ERRONKAK.**

[GAIKO IRAKASLEAK: Rosa Mateos García, Juan Manuel Marín Mesa eta Juan de la Herran Crespo](#)

 [Aplikazioaren, parte-hartzaileen eta Sexukablog Taldearen sarrera](#)


---

**2. GAIA. GIZA PAPILOMAREN BIRUSA (HPV). BAHETZEA ETA AZKEN AURRERAPENAK.**

[GAIAREN IRAKASLEAK: Jose Cruz Quilez Conde](#)

Gai bakoitzeko, egongo dira eskuragarri erabiltzailearentzat zenbait baliabide (PDF fitxategiak, eta estekak bideo edo erlazionatutako webgune jakinetara) eta ebaluatzeko egin behar diren aktibitateak/eginbeharrak.

Ondoren, ondoren plataforman erabiltzen diren zenbait ikono aurkezten dira:



Gida hau osatu dute Osagune-Sexukablog taldekideek.

**Azken errebisioa: 2015eko urriaren 30ean**